Horiek horrela direla, Finantza Zuzendaritzak egindako proposamena aintzakotzat hartu eta hauxe da OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAK udalbatzari proposatutako ERABAKIA, Ogasuneko Batzordearen irizpena izan eta gero:

LEHENENGOA: 27. Poligonoko Jabeen eta Erabiltzaileen Elkarteak (IFK: G20590600) 2022ko urriaren 19an aurkeztutako alegazioaren izapidetzea ez onartzea.

BIGARRENA: Behin betiko onartzea Estolderi zerbitzuari dagokion tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa, 2022ko irailaren 29ko osoko bilkuran hasierako onespena eman zitzaiona.

HIRUGARRENA: Ordenantza fiskalaren aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sar dadin.

fiscal reguladora de las tasas por la prestación del servicio de saneamiento.

Mediante la misma se solicita que no se aplique el gravamen de saneamiento en los suministros para la alimentación de los sistemas contraincendios, subsidiariamente solicita que se disminuya el tipo de la tarifa.

Ante la propuesta realizada, con fecha 21 de noviembre de 2022 desde el Servicio de Hacienda se ha emitido informe mediante el cual se considera que la alegación no es admisible, pues las mismas no versa sobre el contenido de la modificación aprobada inicialmente por el Ayuntamiento Pleno.

En consecuencia, y en virtud de lo expuesto en el citado informe, se propone no admitir a trámite la alegación presentada por la Asociación de Propietarios y Usuarios del Polígono 27, CIF G20590600.

En base a cuanto antecede, y a propuesta de la Dirección Financiera, EL CONCEJAL DELEGADO DE HACIENDA Y FINANZAS propone al Ayuntamiento Pleno que, previo informe de la Comisión de Hacienda, adopte los siguientes ACUERDOS:

PRIMERO: Inadmitir a trámite la alegación presentada por la Asociación de Propietarios y Usuarios del Polígono 27, CIF G20590600, de 19 de octubre de 2022.

SEGUNDO: Aprobar definitivamente la modificación de la Ordenanza fiscal reguladora de las tasas por la prestación del servicio de saneamiento, aprobada inicialmente en sesión plenaria de fecha 29 de septiembre de 2022.

TERCERO: Publicar el texto íntegro de la modificación de la Ordenanza Fiscal en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a los efectos de su

entrada en vigor.

Donostian, 2022ko azaroaren 22

San Sebastián, a 22 de noviembre de 2022

OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

FINANTZA ZUZENDARIA

Izpta./Fdo. Zigor Eguia Lejardi

Izpta./Fdo. Kerman Orbegozo Uribe

OGASUN ZERBITZUKO TEKNIKARIA

Izpta./Fdo. Aitziber Aranburu Argandoña

Eztabaida hasita, Kerman Orbegozo Uribe jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Zigor Etxeburua Urbizu jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoa jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Kerman Orbegozo Uribe, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias y D. Zigor Etxeburua Urbizu, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

AURKAKO BOTOAK: 0.

ABSTENTZIOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA. (1) ELKARREKIN DONOSTIA, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

VOTOS EN CONTRA: 0.

ABSTENCIONES: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA. (1) ELKARREKIN DONOSTIA, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

10. Ordenantza fiskalen aldaketaren onarpen definitiboaren berri ematea.

10. Dar cuenta de la aprobación definitiva de la modificación de las Ordenanzas fiscales.

“UDALBATZARI

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Donostiako Udalbatzak, 2022ko irailaren 29an

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión

eginiko bilkuran, hasiera batean onartu zuen jarraian zerrendatutako Zerga Ordenantzen eta haien Eranskinen aldaketa, 2023ko ekitalditik aurrera ondorioak izan ditzan:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzeko Ordenantza Fiskala (arau-proiektua eta arau-proposamena);
- Udal jabari publikoa erabiltzeari eta ustiapen bereziari dagozkion tasak arautzeko Zerga Ordenantza;
- Trakzio mekanikodun ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeari dagozkion tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza;
- Ibilgailuak bide publikoaren ibilgetu, jaso eta zaintzeko zerbitzuari dagokion tasa arautzeko Ordenantza Fiskala;
- Estolderi zerbitzuari dagokion tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala; eta
- Hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzu tasak dituen Zerga Ordenantza.

Hasierako onarpenaren iragarkia 2022ko urriaren 6an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon data berean argitaratu zen eta Udaletxeko iragarki taulan 2022ko urriaren 6an; hala, jendaurrean jarrita edukitzeko epea hasi zen.

Epe hori 2022ko azaroaren 21 bukatu zen, eta ez da erreklamaziorik aurkeztu aldaketa hauei dagokienez:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzeko Ordenantza Fiskala (arau-proiektua);

celebrada el día 29 de septiembre de 2022, aprobó inicialmente la modificación de las siguientes Ordenanzas Fiscales y sus Anexos, con efectos a partir del ejercicio 2023:

- Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles (proyecto normativo y proposición normativa);
- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del dominio público municipal;
- Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por el estacionamiento de vehículos de tracción mecánica en las vías públicas municipales;
- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la prestación del Servicio de Inmovilización y Retirada de Vehículos de la vía pública y subsiguiente custodia de los mismos;
- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la prestación del saneamiento; y
- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la prestación del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos.

Con fecha 6 de octubre de 2022, se insertó el anuncio de la citada aprobación inicial en el Boletín Oficial de Gipuzkoa; en el Diario Vasco se publicó esa misma fecha y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento el 6 de octubre de 2022, abriéndose el plazo de exposición pública.

Finalizado dicho plazo el 21 de noviembre de 2022, no consta que haya sido presentada reclamación alguna en relación a las modificaciones:

- Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles (proyecto normativo);

- Udal jabari publikoa erabiltzeari eta ustiapen bereziari dagozkion tasak arautzeko Zerga Ordenantza;

- Trakzio mekanikodun ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeari dagozkion tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza;

- Ibilgailuak bide publikoaren ibilgetu, jaso eta zaintzeko zerbitzuari dagozkion tasa arautzeko Ordenantza Fiskala;

- Hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzu tasak dituen Zerga Ordenantza.

Horrenbestez, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau erregulatzailearen 16. artikuluan xedaturikoarekin bat, egun horretatik aurrera hasierako onarpen erabakia behin betiko onartutzat jo daiteke eta, horren ondorioz, aurreko paragrafoan aipatutako Ordenantza Fiskalen aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

Halaber, eta zentzu horretan, Donostiako Udaleko Udaltzaren Araudi Organikoaren 113. artikulua honako hau xedatzen du: "alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko bilakatuko da, Tokiko Gobernu Batzarrak gertakari hori Idazkaritza Nagusiari jakinaraziko dio, eta azken horrek beharrezko gestioak egingo ditu Udaltzari behin betiko onarpenaren berri emateko."

Horiek horrela, Udaltzari jakinarazi zaio behin

- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del dominio público municipal;

- Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por el estacionamiento de vehículos de tracción mecánica en las vías públicas municipales;

- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la prestación del Servicio de Inmovilización y Retirada de Vehículos de la vía pública y subsiguiente custodia de los mismos; y

- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la prestación del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, a partir de esa fecha puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial respecto a las Ordenanzas Fiscales señaladas en el párrafo anterior, y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro de las modificaciones de las citadas Ordenanzas fiscales en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Así mismo, y en este mismo sentido, el artículo 113 del Reglamento Orgánico del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián señala que "en caso de que no se hubiera presentado reclamación o sugerencia se convierte en definitivo el acuerdo de aprobación hasta entonces provisional y que la Junta de Gobierno comunicará dicha circunstancia a la Secretaría General quien llevará a cabo las gestiones oportunas para dar cuenta de la aprobación definitiva al Pleno".

Por lo expuesto, se da cuenta al Excmo.

betiko onartu direla jarraian adierazitako Zerga Ordenantzen eta haien Eranskinen aldaketak, 2023ko ekitalditik aurrera ondorioak izango dituztenak. Era berean, behin betiko onarpena emateko erabakia eta aldaketen testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua eman da:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzeko Ordenantza Fiskala (arau-proiektua);
- Udal jabari publikoa erabiltzeari eta ustiapen bereziari dagozkion tasak arautzeko Zerga Ordenantza;
- Trakzio mekanikodun ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeari dagozkion tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza;
- Ibilgailuak bide publikoaren ibilgetu, jaso eta zaintzeko zerbitzuari dagozkion tasa arautzeko Ordenantza Fiskala;
- Hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzu tasak dituen Zerga Ordenantza.

Donostian, 2022ko azaroaren 24an.

OGASUN ZERBITZUKO TEKNIKARIA

Izpta./Fdo: Leire Akizu Bidegain

OGASUNNEKO ETA FINANTZETAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Fdo/Izpta: Kerman Orbegozo Uribe”

BOZKETAREN EMAITZA:
JAKINEAN.

Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de las modificaciones de las Ordenanzas Fiscales que se señalan a continuación y sus Anexos, con efectos a partir del ejercicio 2023 y se dispone la publicación de este acuerdo de aprobación definitiva, así como el texto íntegro de la modificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa:

- Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles (proyecto normativo);
- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del dominio público municipal;
- Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por el estacionamiento de vehículos de tracción mecánica en las vías públicas municipales;
- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la prestación del Servicio de Inmovilización y Retirada de Vehículos de la vía pública y subsiguiente custodia de los mismos; y
- Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por la prestación del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos.

San Sebastián, a 24 de noviembre de 2022.

FINANTZA ZUZENDARIA

Izpta./Fdo. Zigor Eguia Lejardi”

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
ENTERADO.

11. Udal zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatiko Prezio Publikoen aldatetaren onarpen proposamena.

11. Propuesta de aprobación de la modificación de los Precios públicos por prestación de Servicios o Realización de actividades municipales.

“UDALBATZARI

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Udal Zerbitzuak Eman edo Jarduerak Egiteagatiko prezio publikoak ezarri eta aldatzea Udaltzaren erabaki batek arautzen du, erregelamendu mailarik ez duen erabaki batek.

El establecimiento y modificación de los Precios Públicos por la Prestación de Servicios o la Realización de Actividades Municipales se regulan mediante acuerdo plenario de carácter no reglamentario.

LEHENENGOA: 2021. URTEKO MURRIZKETA, COVID-19a ZELA ETA JARRITAKOA.

PRIMERO: REDUCCIÓN PARA EL AÑO 2021 A CAUSA DEL COVID-19

Udal Gobernuak prezio batzuk %15 murriztea proposatu zuen Covid-19ak ekarritako osasun larrialdia zela eta diru-sarrerak gutxitu zizkien errenta txikiko familia unitateei; 2021ean besterik ez murriztea prezioak eta Gizarte laguntzak jasotzen zituzten familiei aplikatzea hura.

El Gobierno Municipal propuso introducir exclusivamente para el año 2021, una reducción del 15% en algunos precios para aquellas unidades familiares con las rentas más bajas que, como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid19, habían visto afectados sus ingresos. La reducción se aplicaría a las familias receptoras de ayudas sociales.

Murrizketak zerbitzu hauen tarifei eragin zien: Gazteria Bulegoko Zerbitzuaren ikastaro eta tailerrak, baratze publikoen prezioak, Ingurumen Zerbitzuaren 55+ ikastaroak eta ezkontzak egiteko prezioak.

La reducción afectó a los precios de los siguientes servicios: cursos y talleres del Servicio del Negociado de Juventud, en los precios de las huertas públicas, y los cursos 55+ del Servicio de Medio Ambiente, y en los precios para las celebraciones de bodas.

Beraz, murrizketa horri buruz egindako aipamenak eranskinetik kentzea proposatzen dugu, haien erregulazioak ez duelako zentzurik.

Así pues, se propone eliminar del anexo las referencias realizadas a dicha reducción por carecer de sentido su regulación.

BIGARRENA: LARRIALDIETAKO ETXEKO ZERBITZUAK:

SEGUNDO: SERVICIOS CASA DE SOCORRO:

Osasun eta Ingurumen Zerbitzuak jakinarazi

Desde el Servicio de Salud y Medioambiente

duenez, 2020ko martxoaren 23tik aurrera udalak ez du osasun zerbitzurik ematen Sorospen Etxean.

Orain arte, Policlínica de Guipúzcoa SAREN bidez ematen ziren egunez ematen ziren osasun zerbitzuak.

Azaldutakoaren arabera, Sorospen Etxeko osasun zerbitzuei dagozkien prezioak eranskinetik kentzea proposatzen dugu, eta eranskineko zerbitzuen zenbakiak doitzea.

HIRUGARRENA: UDAL ERRAUSKETA ZERBITZUA

Donostiako Hileta Zerbitzuak SA sozietateak kostu azterketa egin du, eta azterketa horren bidez, egoera ekonomikoa eta indarrean dauden prezioak aztertu ondoren, errausketa zerbitzuen prezioak igotzea proposatu du.

Txostenean proposatutako igoera % 19,55 da, 2022ko prezioen igoerak, batez ere, gasarenak, eraginda.

Prezio hauek proposatu dituzte:

11) UDAL ERRAUSKETA ZERBITZUA / SERVICIO DEL CREMATORIO MUNICIPAL

	€	%21 BEZ / IVA 21%	Guztira / Total
Gorpua erraustea / Incineración de un cadáver	487,99	102,48	590,47
Gorpuzkiak erraustea / Incineración de restos	315,11	66,17	381,28
Anputazioen, fetuen eta jaioberrien errausketa / Incineración de amputaciones, fetos y recién nacido	95,20	19,99	115,19

LAUGARRENA: GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ekintza Zuzendaritzak proposatu du

informan que, desde el 23 de marzo de 2020, este Ayuntamiento no presta servicios sanitarios en la Casa de Socorro.

Hasta la fecha, los servicios sanitarios en horario diurno se venían prestando a través de la Policlínica de Guipúzcoa, S.A.

En virtud de lo expuesto, se propone eliminar del anexo los precios relativos a los servicios sanitarios de la casa de socorro, y volver a enumerar los servicios del anexo.

TERCERO: CREMATORIO MUNICIPAL:

Desde la sociedad Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A. se ha realizado estudio de costes mediante el cual, tras analizar la situación económica así como los precios en vigor, se propone una subida de los precios relativos a los servicios de incineración.

La subida propuesta en el informe es de 19,55%, y ello lo motiva en la subida de los precios en el año 2022, y sobre todo en el precio al alza del gas.

Los precios que se proponen son los siguientes:

CUARTO: BIENESTAR SOCIAL

Desde la Dirección de Acción Social proponen

ohar bat sartzea prezio publikoen eranskinen seigarren puntuan (bosgarrena, berriro zenbakitu ondoren), adierazteko hileko IPREM dela diru-sarrerak eta libre erabiltzekoa kalkulatzeko kontuan hartzen den IPREMa.

incluir una nota en el punto sexto (quinto tras la renumeración) del anexo de los precios públicos que indique que el IPREM que se tiene en cuenta para el cálculo de los ingresos y para el cálculo de la libre disposición es el IPREM mensual.

BOSGARRENA: GAZTERIA BULEGOAREN ZERBITZUAK:

QUINTO: SERVICIOS DE NEGOCIADO DE JUVENTUD:

1.- Gizarte Sustapen eta Hezkuntza Zerbitzuak beste prezio publiko bat sortzea proposatu du Aste Santuan Haurtxokoetan izaten den programa bereziko. Zerbitzua Haur Hezkuntzatik hasi (5 urte) eta Lehen Hezkuntzako 5. mailara bitarteko haurrentzako izango da, eta bi txandatan eskainiko da.

1.- Desde el Servicio de Promoción Social y Educación se propone crear un nuevo precio público para el Programa especial en los Haurtxokos en Semana Santa. El servicio está dirigido a los niños y niñas que están en los cursos escolares comprendidos desde educación infantil (5 años) y hasta 5º de educación primaria, y se ofrecerá en dos turnos.

Prezioa kalkulatzeko, Donostia Kulturak eta Euskara Zerbitzuak zerbitzu mota horietarako jarrita dituzten prezioak hartu dira erreferentzia: 5 €/eguneko.

Para calcular los precios se han tenido como referencia los precios establecidos por Donostia Kultura y el Servicio de Euskara para este tipo de servicios, que es de 5€/día.

Beraz, prezio horiek eranskinaren bigarren atalean sartzea proposatzen da. Honako prezio hauek proposatzen dira:

Por lo tanto, se propone introducir dichos precios dentro del apartado segundo del anexo. Los precios que se proponen son:

		%10 BEZ / IVA 10%	Total
Aste Santuko Programa Berezia Haurtxokoetan / Programa Especial de Semana Santa en los Haurtxokos			
1. txanda (lehenengo astea, 3 egun) / 1º Turno (primera semana 3 días)	13,64€	1,36€	15,00€
2. txanda (bigarren astea - Pazko Astea, 4 egun) / 2º turno (segunda semana - Semana de Pascua, 4 días)	18,18€	1,82€	20,00€

2.- Gizarte laguntzak jasotzen dituzten familiei ikastaroak eta tailerrak egiteko prezioak %15 murriztea proposatu du Gizarte Sustapen eta Hezkuntza Zerbitzuak.

2.- Con respecto a los cursos y talleres, el Servicio de Promoción Social y Educación propone introducir una reducción de los precios del 15% para aquellas familias preceptoras de ayudas sociales.

Era berean, ikastaro eta tailerren BEZa dela eta, ikusi dugu 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat %21eko BEZa izatea jartzen duela eranskinean; baina %10ekoa izan behar du, eta, beraz, eranskinean hori aldatzea proposatzen dugu.

Asimismo, en cuanto al IVA de los cursos y talleres, se ha detectado que el anexo fija para los destinados a jóvenes de entre 18 y 30 años un IVA del 21% cuando este es del 10%, por ello se propone su modificación.

Ondorioz, honako hauek dira proposatzen diren prezioak:

En consecuencia, los precios que se propone son los siguientes:

IKASTAROAK ETA TAILERRAK / CURSOS Y TALLERES

Udal haurtxokoetako 5 eta 11 urte bitarteko haurrentzako ikastaroak / Cursos dirigidos a niñas/os de 5 a 11 años de los haurtxokos municipales:

	€/orduko	%10 BEZ / IVA 10%	Guztira / Total
Antzerkia, gorputz-espresio, yoga, psikomotrizitate, dantzak, sukaldaritza, baratze, eskulanak, marrazketa, imitaziozko bitxiak / Teatro, expresión, yoga, psicomotricidad, danzas, cocina, huerta, manualidades, dibujo, bisutería.	1,36	0,14	1,50
Gizarte laguntza jasotzen duen familia (% 15eko murrizketa prezioan) / Familia perceptora de ayuda social (reducción 15% de los precios)	1,16€	0,11€	1,27€

Oharra: Gizarte laguntzak jasotzen dituzten familien egoera Udaleko Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren bidez egiaztatuko da. / Nota: La situación de las familias que perciban ayudas sociales se acreditará a través de la Dirección de Bienestar Social del Ayuntamiento.

Udal Gaztelekuetako 12 eta 17 urte bitarteko nerabeentzako ikastaroak/ Cursos dirigidos a adolescentes de 12 a 17 años de los gaztelekus municipales:

	€/orduko	%10 BEZ / IVA 10%	Guztira / Total
Antzerkia, funky, street dance, break dance, skate, imitaziozko bitxia, eskulanak, makillaje, bideo-joko sorrera, sukaldaritza. / Teatro, funky, street dance, break dance, skate, bisutería, manualidades, maquillaje, creación de videojuegos, cocina.	1,36	0,14	1,50
Gizarte laguntza jasotzen duen familia (% 15ekomurrizketa prezioan) / Familia perceptora de ayuda social (reducción 15% de los precios)	1,16€	0,11€	1,27€

Oharra: Gizarte laguntzak jasotzen dituzten familien egoera Udaleko Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren bidez egiaztatuko da. / Nota: La situación de las familias que perciban ayudas sociales se acreditará a través de la Dirección de Bienestar Social del Ayuntamiento.

18 eta 30 urte bitarteko artistiko - espresio gazteentzako ikastaroak / Cursos de expresión artística dirigidos a jóvenes de 18 a 30 años:

	€/orduko	%10 BEZ / IVA 10%	Guztira / Total
Arte eszenikoak, norberaren trebetasunak lantzekoak, argazkigintza 1, teknologia berriak eta ikus-entzunezkoak / Artes escénicas, conocimiento personal, fotografía 1, nuevas tecnologías y audiovisuales.	1,24	0,12	1,36
Gizarte laguntza jasotzen duen familia (% 15eko murrizketa prezioan) / Familia perceptora de ayuda social (reducción 15% de los precios)	1,06€	0,10€	1,16€
Argazkigintza 2, erropa eta osagarrien jantzigintza, hiri aktuazioa. / Fotografía 2, confección de ropa y complementos, intervención urbana.	1,45	0,14	1,59
Gizarte laguntza jasotzen duen familia (% 15eko murrizketa prezioan) / Familia perceptora de ayuda social (reducción 15% de los precios)	1,24 €	0,12€	1,36€
Sukaldaritza, makillajea / Cocina, maquillaje	1,65	0,16	1,81
Gizarte laguntza jasotzen duen familia (% 15eko murrizketa prezioan) / Familia perceptora de ayuda social (reducción 15% de los precios)	1,41€	0,14€	1,55€

Oharra: Gizarte laguntzak jasotzen dituzten familien egoera Udaleko Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren bidez egiaztatuko da. / Nota: La situación de las familias que perciban ayudas sociales se acreditará a través de la Dirección de Bienestar Social del Ayuntamiento.

3.- Tarteka izaten diren musika kontzertuetako eta Gazteen Antzerki Topaketako sarrerak direla eta, BEZarena kentzea eta prezioak biribiltzea proposatu du Gizarte Sustapen eta Hezkuntza Zerbitzuak; 6,00 € izatea kontzertuetarako eta 3,00 € antzerki saioetarako.

3.- En relación a las entradas para conciertos de música puntuales y sesiones de la Muestra de Teatro de Joven, el Servicio de Promoción Social y Educación propone quitar del anexo el IVA y redondear el precio a 6,00€ y 3,00€ respectivamente.

Era berean, honako "€/ordua" jartzen zuen lekuan "€"jartzea ere proposatu dute.

A su vez, se propone que donde ponía "€/hora" ponga "€".

BEZari dagokionez, Ogasun Zerbitzuak baieztatu du zerbitzu hori salbuetsita dagoela BEZetik eta, beraz, ez dela jasanarazi behar.

Respecto al IVA, desde este Servicio de Hacienda se ha confirmado, que este servicio se encuentra exento del IVA, por lo que el mismo no debe repercutirse.

Hauxe da, zehazki, proposamena:

La propuesta concreta es la siguiente:

SARRERAK / ENTRADAS:

	€
Musika-kontzertu zehatzak / Conciertos de música puntuales	6,00€
Gazteen Antzerki Topaketako emanaldiak / Sesiones de la Muestra de Teatro Jóven	3,00€

**SEIGARRENA: GAZTEENTZAKO UDAL
ATERPETXEEN ZERBITZUAK:**

Gizarte Sustapen eta Hezkuntza Zerbitzuak egindako txostenean azaltzen denez, handitu egin dira Ulia eta Ondarreta-La Sirenako gazte-aterpetxeen mantentze-gastuak, eta, hala, ostatuaren prezioak % 3 eta gosari, bazkari eta afarien prezioak % 8 igotzea proposatu dute.

Era berean, Ondarretako Gazte Aterpetxeari dagokionez, pertsona eta gau bakoitzeko finkatzen diren prezioetan ostatua eta maindireak sartzea proposatzen da, beste ostatuetan jasotzen den bezala.

Era berean, beste ostatu eta zerbitzu batzuk bezala, aterpetxekidearen gosaria, bazkari/afaria, bazkari/afaria kirolzaleentzat, piknika, oliba olioia, ezti naturala, bustitzeko tomaterako prezioak sartzea proposatzen da, akats baten ondorioz 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egon den eranskinean aipatu ez zirenak.

Zehazki, honako hau da proposatzen dena:

**SEXTO: SERVICIOS DE ALBERGUES
JUVENILES MUNICIPALES:**

En el informe emitido por el Servicio de Promoción Social y Educación se expone que los gastos de mantenimiento de los albergues juveniles de Ulia y Ondarreta- La Sirena han subido, y es por ese motivo que proponen un incremento del 3% de los precios para el alojamiento, y del 8% para los precios de los desayunos, comidas y cenas.

A su vez, respecto al Albergue Juvenil de Ondarreta se propone incluir en los precios que se fijan por persona y noche, el alojamiento y sábanas, tal y como se recoge en los otros alojamientos.

Además, se propone que se incluya, como otros alojamientos y servicios, los precios para el desayuno de alberguistas, la comida/cena, la comida/cena para deportista, picnic, aceite de oliva, miel natural y el tomate para untar, que por error se omitieron en el anexo a regir con desde el 1 de enero de 2021.

En concreto, se propone:

Ondarreta Gazte Aterpetxea:

Pertsona eta gau bakoitzeko. Ostatu eta maindire / Por persona y noche. Hospedaje y sábanas	€/ aterpeduna / €/alberguist	BEZ %10 / IVA 10 %	Guztira / Total

		a		
Goi denboraldia / Temporada alta				
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urte artekoak / Hasta 29 años	17,556	1,75	19,30
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		19,429	1,94	21,36
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urtetik aurrera / Mayores de 29 años	20,852	2,08	22,93
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		22,981	2,29	25,27
Tarteko denboraldia / Temporada media				
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urte artekoak / Hasta 29 años	15,777	1,57	17,34
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		17,650	1,76	19,41
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urtetik aurrera / Mayores de 29 años	19,291	1,93	21,22
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		21,420	2,14	23,56
Behe denboraldia / Temporada baja				
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urte artekoak / Hasta 29 años	14,045	1,40	15,44
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		15,824	1,58	17,40
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urtetik aurrera / Mayores de 29 años	17,908	1,79	19,69
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		19,812	1,98	21,79

Beste ostatu eta zerbitzuak / Otros alojamientos y servicios

	€/aterpeduna / €/alberguista	BEZ %10 / IVA 10 %	Guztira / Total
Aterpetxekidearen gosaria (gutxienez 15 lagunentzako hartu behar da) / Desayuno alberguista (mínimo de 15 personas)	5,108	0,51	5,62 €
Bazkaria/afaria (gutxienez 10 lagunentzako hartu behar da). / Comida/cena (número mínimo de servicios: 10 personas)	9,428	0,94	10,37 €
Bazkaria/afaria – Extra kirolzalea (gutxienez 10 lagunentzako hartu behar da). / Comida/cena – Extra deportista (número mínimo de servicios: 10 personas)	10,508	1,05	11,56 €
PIKNIK Ondarreta / Ondarreta PICNIC	6,285	0,63	6,90 €
Oliba Oliba Birjina estra /	0,162	0,02	0,18

Aceite de Oliva Virgen Extra			
Ezti naturala / Miel natural	0,216	0,02	0,23
Bustitzeko tomatea / tomate para untar	0,216	0,02	0,23

TALDEAK: Gutxieneko kopurua 15 lagun. / Grupos: Mínimo 15 personas

Pertsona eta gau bakoitzeko. Ostatu eta maindire / Por persona y noche. Hospedaje y sábanas		€/aterpeduna / €/alberguista	BEZ %10 / IVA 10 %	Guztira / Total
Tarteko denboraldia				
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urte artekoak / Hasta 29 años	14,199	1,41	15,60 €
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		15,884	1,58	17,46 €
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urtetik aurrera / Mayores de 29 años	17,362	1,73	19,09 €
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		19,278	1,92	21,19 €
Behe denboraldia				
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urte artekoak / Hasta 29 años	12,641	1,26	13,90 €
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		14,242	1,42	15,66 €
Logela handia (6, 8, 10, 12) / Habitación grande (6, 8, 10, 12)	29 urtetik aurrera / Mayores de 29 años	17,958	1,59	17,54 €
Logela txikia (2 - 4) / Habitación pequeña (2 - 4)		17,831	1,78	19,61 €

Erabilera pribatiboko prezioak osoko gelatik. / Precios por habitación completa en uso privativo.

Goi denboraldia: / Temporada alta:

Erabilera pribatiboko 2-3 plaza / 2-3 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
2 pax	57,586	5,76	63,34

Erabilera pribatiboko 4 plaza / 4 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
2 pax	57,586	5,76	63,34
3 pax	67,184	6,72	73,90
4 pax	76,781	7,68	84,46

Erabilera pribatiboko 6 plaza / 6 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
4 pax	95,883	9,59	105,47
5 pax	105,340	10,53	115,87
6 pax	115,173	11,52	126,70

Erabilera pribatiboko 8 plaza / 8 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
7 pax	144,200	14,42	158,62
8 pax	153,563	15,36	168,90

Erabilera pribatiboko 10 plaza / 10 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
9 pax	202,254	20,23	222,48
10 pax	210,681	21,07	231,75

Erabilera pribatiboko 12 plaza / 12 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
11 pax	220,420	22,04	242,46
12 pax	230,345	23,03	253,37

Tarteko denboraldia: / Temporada media:

Erabilera pribatiboko 2-3 plaza / 2-3 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
1 pax	39,071	3,91	42,98

Erabilera pribatiboko 4 plaza / 4 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
2 pax	52,576	5,26	57,83
3 pax	61,331	6,13	67,46
4 pax	70,133	7,01	77,14

Erabilera pribatiboko 6 plaza / 6 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
4 pax	87,674	8,77	96,44
5 pax	96,441	9,64	106,10
6 pax	105,200	10,52	115,72

Erabilera pribatiboko 8 plaza / 8 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
7 pax	122,898	12,29	135,19
8 pax	140,454	14,05	154,50

Erabilera pribatiboko 10 plaza / 10 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
7 pax	158,011	15,80	173,81
8 pax	175,568	17,56	193,12

Erabilera pribatiboko 12 plaza / 12 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
7 pax	193,125	19,31	212,43
8 pax	210,681	21,07	231,75

Behe denboraldia: / Temporada baja:

Erabilera pribatiboko 2-3 plaza / 2-3 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
1 pax	35,637	3,56	39,19

Erabilera pribatiboko 4 plaza / 4 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
2 pax	47,660	4,77	52,43
3 pax	55,572	5,56	61,13
4 pax	63,531	6,35	69,88

Erabilera pribatiboko 6 plaza / 6 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
4 pax	79,442	7,94	87,38
5 pax	87,385	8,74	96,12
6 pax	95,321	9,53	104,85

Erabilera pribatiboko 8 plaza / 8 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
7 pax	111,426	11,14	122,57
8 pax	127,345	12,73	140,08

Erabilera pribatiboko 10 plaza / 10 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
7 pax	143,263	14,33	157,60
8 pax	159,181	15,92	175,10

Erabilera pribatiboko 12 plaza / 12 plazas uso privativo	€	%10 BEZ	Guztira
7 pax	175,100	17,51	192,61
8 pax	191,018	19,10	210,11

Uliako Gazte Aterpetxea:

Ostatu eta maindire, hartzeko gau eta pertsona bakoitzeko / Alojamiento y sábanas por persona y noche	€/ aterpekidea / €/alberguista	BEZ %10 / 10% IVA	Guztira / Total
Goi denboraldia / Temporada alta			
29 URTE ARTE / HASTA 29 AÑOS	17,556	1,75	19,31 €
29 URTETIK GORAKOAK / MAYORES DE 29 AÑOS	21,060	2,10	23,16 €
Tarteko denboraldia / Temporada media			
29 URTE ARTE / HASTA 29 AÑOS	15,777	1,57	17,34 €
29 URTETIK GORAKOAK / MAYORES DE 29 AÑOS	17,403	1,74	19,14 €
Behe denboraldia / Temporada baja			
29 URTE ARTE / HASTA 29 AÑOS	14,045	1,40	15,45 €
29 URTETIK GORAKOAK / MAYORES DE 29 AÑOS	17,908	1,79	19,69 €

Beste ostatu eta zerbitzuak / Otros alojamientos y servicios

	€/aterpekidea / €/alberguista	BEZ %10 / 10% IVA	Guztira / Total
Aterpetxekidearen gosaria / Desayuno alberguista	5,108	0,51	5,62€
Bazkaria/afaria (gutxienez 10 lagunentzako hartu behar da). / Comida/cena (número mínimo de servicios: 10 personas)	9,428	0,94	10,37 €
Bazkaria/afaria – Extra kirolzalea (gutxienez 10 lagunentzako hartu behar da). / Comida/cena – Extra deportista (número mínimo de servicios: 10 personas)	10,508	1,05	11,56 €
Sukaldea erabiltzea 6 lagunentzako gelan. Laguneko eta gaueko. Gutxienez, 5 lagun. / Uso de cocina en habitación de 6. Por persona y noche. Mínimo 5 personas.	1,963	0,19	2,153 €
Oliba Olia Birjina estra / Aceite de Oliva Virgen Extra	0,162	0,02	0,18
Ezti naturala / Miel natural	0,216	0,02	0,23
Bustitzeko tomatea / Tomate para untar	0,216	0,02	0,23

Taldeak. Gutxienerako kopurua 15 lagun. / Grupos: Mínimo 15 personas

Ostatu eta maindire, hartzeko gau eta pertsona bakoitzeko / Alojamiento y sábanas por persona y noche	€/aterpekidea / €/alberguista	BEZ %10 / 10% IVA	Guztira / Total
Tarteko denboraldia / Temporada media			
29 URTE ARTE / HASTA 29 AÑOS	14,199	1,42	15,60 €
29 URTETIK GORAKOAK / MAYORES DE 29 AÑOS	17,362	1,73	19,09 €
Behe denboraldia / Temporada baja			
29 URTE ARTE / HASTA 29 AÑOS	12,641	1,26	13,90 €
29 URTETIK GORAKOAK / MAYORES DE 29 AÑOS	15,958	1,59	17,54 €

Erabilera pribatiboko prezioak. / Precios por habitación completa en uso privativo

Goi denboraldia: / Temporada alta:

Erabilera pribatiboko 4 plaza / Habitación completa 4 plazas	€	%10 BEZ	Guztira
2 pax	57,618	5,76	63,38
3 pax	67,218	6,72	73,93
4 pax	76,781	7,68	84,46

Erabilera pribatiboko 6 plaza / Habitación completa 6 plazas	€	%10 BEZ	Guztira
4 pax	96,027	9,60	105,63

5 pax	105,627	10,56	116,19
6 pax	115,173	11,52	126,69

Tarteko denboraldia: / Temporada media:

Erabilera pribatiboko 4 plaza / Habitación completa 4 plazas	€	%10 BEZ	Guztira
2 pax	52,602	5,26	57,86
3 pax	61,367	6,14	67,50
4 pax	70,133	7,01	77,14

Erabilera pribatiboko 6 plaza / Habitación completa 6 plazas	€	%10 BEZ	Guztira
4 pax	87,674	8,77	96,44
5 pax	96,439	9,64	106,08
6 pax	105,200	10,52	115,72

Behe denboraldia: / Temporada baja:

Erabilera pribatiboko 4 plaza / Habitación completa 4 plazas	€	%10 BEZ	Guztira
2 pax	47,668	4,77	52,43
3 pax	55,610	5,56	61,17
4 pax	63,531	6,35	69,88

Erabilera pribatiboko 6 plaza / Habitación completa 6 plazas	€	%10 BEZ	Guztira
4 pax	79,444	7,94	87,38
5 pax	87,385	8,74	96,12
6 pax	95,321	9,53	104,85

Beste prezio batzuk:

	€/aterpekidea / €/alberguista	BEZ %10 / IVA 10%	Guztira / Total
Eskuoihalak / Toallas por persona	1,872	0,19	2,06 €
Beste itzultze gastu batzuk / Otros gastos devoluciones	3,745	0,37	4,11 €

Aretoak alokatzeko, fidantza katea konsignetarako eta aterpetxekidearen txartelerako ezartzen diren prezioei dagokienez, ez da inolako igoyerarik proposatzen.

Horiek horrela direla, Finantza Zuzendaritzak egindako proposamena aintzakotzat hartu eta hauxe da OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAK udalbatzari proposatutako ERABAKIA, Ogasuneko Batzordearen irizpena izan eta gero:

LEHENA: Onestea Udal Zerbitzuak Eman edo Jarduerak Egiteagatiko prezio publikoen eranskinetako aldaketak, azalpen zatietan adierazi diren zerbitzuei dagokienez.

BIGARRENA: Erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrerako ondorioekin, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43. artikulua eta ondorengoetan azaltzen den eran.

Donostia, 2022ko azaroaren 10.

OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Izpta./Fdo. Kerman Orbegozo Uribe

OGASUN ZERBITZUKO TEKNIKARIA

Izpta./Fdo. Aitziber Aranburu Argandoña

Eztabaida hasita, Kerman Orbegozo Uribe jaunak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Kerman Orbegozo Uribe, D. Jorge Mota Iglesias, D.^a Aitzole Araneta Zinkunegi y D. Zigor Etxeburua Urbizu, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Respecto a los precios que se establecen para el alquiler de salas, fianza por candado para consignas y el carnet de alberguista, no se propone incremento alguno.

En base a cuanto antecede, y a propuesta de la Dirección Financiera, EL CONCEJAL DELEGADO DE HACIENDA Y FINANZAS propone al Ayuntamiento Pleno que, previo informe de la Comisión de Hacienda, adopte los siguientes ACUERDOS:

PRIMERO: Aprobar las modificaciones del Anexo de los precios públicos por la Prestación de Servicios o la Realización de Actividades Municipales, en lo que hace referencia a los Servicios descritos en la parte expositiva.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, conforme a lo establecido en el art. 43 y siguientes de la Norma Foral 11/1989 de 5 de Julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 10 de noviembre de 2022.

FINANTZA ZUZENDARIA

Izpta./Fdo. Zigor Eguia Lejardi

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 11. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA AL ASUNTO N.º 11:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 5 - (2) PP, (3)

ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 14 - (9) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 6 - EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 5 - (2) PP, (3)

ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 14 - (9) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENCIONES: 6 - EH BILDU.

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 11. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA AL ASUNTO N.º 11:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 5 - (2) PP, (3)

ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 14 - (9) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 6 - EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 5 - (2) PP, (3)

ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 14 - (9) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENCIONES: 6 - EH BILDU.

EH BILDU TALDEAK 11. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU AL ASUNTO N.º 11:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 11 - (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 14 - (9) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 11 - (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 14 - (9) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

EH BILDU TALDEAK 11. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU AL ASUNTO N.º 11:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

11. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 11:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

AURKAKO BOTOAK: 0.

ABSTENTZIOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

VOTOS EN CONTRA: 0.

ABSTENCIONES: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

**PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN
BATZORDEA**

COMISIÓN DE SERVICIO A LAS PERSONAS

12. Donostia Kulturaren hainbat postu sortzea onartzea.

12. Aprobar la creación de varios puestos de trabajo en Donostia Kultura.

“UDALBATZARRARI

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Donostia Kultura Enpresa Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2022ko azaroaren 16an egindako bilkuran, honako erabaki hau

El Consejo de Administración de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura, en sesión celebrada el día 16 de noviembre de 2022, adoptó

hartu zuen:

32/2021 Errege Lege Dekretuak, abenduaren 28koak, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoak, aldatu egin du Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 15. artikulua (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

15. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, aldi baterako kontratazioa ekoizpenaren inguruabarrengatik edo langilea ordezkatzeko baino ezin da egin.

Ekoizpen-zirkunstantziatzat hartzen dira jardueraren noizbehinkako eta aurreikusi ezinezko hazkundera eta gorabeherak, enpresaren jarduera normala izan arren, aldi baterako desoreka sortzen dutenak eskuragarri dagoen enplegu egonkorren eta behar denaren artean, betiere 16.1 artikuluan (aldizkako kontratu finkoa) jasotako kasuei erantzuten ez badiete.

Aurreko paragrafoan aipatutako gorabeheren artean sartuko dira urteko oportunitate eratorritakoak.

Donostia Kulturak aldi baterako kontratazioak egin izan ditu, antolatzen dituen jaialdiek (DFeria, Jazzaldia, Beldurraren Astea, Giza Eskubideen Zinema, etab.) sortutako beharrei erantzuteko, edo aldi jakin batzuetan jarduera handitzeak eragindako beharrei erantzuteko (udako errefortzuak, memoria, etab.). Jarduera horien ekoizpenarekin eta hedapenarekin lotutako premiak dira.

Premia horiek obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuaren bidez betetzen ziren (aipatutako 32/2021 Errege Lege Dekretua indarrean jarri

el siguiente acuerdo:

El Real Decreto Ley 32/2021 de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reforma laboral, la garantía de la estabilidad en el empleo y la transformación del mercado de trabajo ha modificado el artículo 15 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por el RDL 2/2015 de 23 de octubre.

En aplicación de lo establecido por dicho artículo 15 la contratación temporal solo puede realizarse por circunstancias de la producción o por sustitución de la persona trabajadora.

Se consideran circunstancias de la producción el incremento ocasional e imprevisible de la actividad y las oscilaciones que, aun tratándose de la actividad normal de la empresa, generan un desajuste temporal entre el empleo estable disponible y el que se requiere, siempre que no respondan a los supuestos incluidos en el artículo 16.1 (contrato fijo discontinuo).

Entre las oscilaciones a que se refiere el párrafo anterior se entenderán incluidas aquellas que derivan de las vacaciones anuales.

Donostia Kultura ha venido realizando contrataciones temporales para atender a las necesidades generadas por los distintos festivales que organiza (DFeria, Festival de Jazz, Semana de Terror, Cine DDHH, etc.) o para atender a necesidades derivadas del incremento de la actividad en determinados periodos (refuerzos de verano, memoria, etc.). Se trata de necesidades relacionadas con la producción de dichas actividades y con su difusión.

Estas necesidades se venían cubriendo a través del contrato de obra o servicio determinado (desaparecido tras la entrada en vigor del

ondoren desagertu egin zen), edo, errefortzuen kasuan, iraupen mugatuko kontratuen bidez, eta kontratu horiek ez datoz bat 15. artikularen idazketa berriarekin (aurreikus daitezkeen beharrak dira, eta, beraz, behin eta berriz errepikatzen dira, egiturazkoak).

Egindako kontratazioak aztertu ondoren, Donostia Kulturako Giza Baliabideen buruaren urriaren 6ko txostenean jasotzen den moduan, ondorioztatu da erakundearen egiturazko premiak direla, eta, gainera, bata bestearekin kateatzen direla urtean zehar.

Aipatutako txostenean adierazten den bezala, 2019an jardueren hedapenarekin lotutako kontratuak egin ziren, 570 egunetarako guztira, eta 583 egunetarako guztira, jarduera horien produkzioarekin lotutako zereginetarako (2020ko eta 2021eko produkzioko datuak ez dira esanguratsuak, pandemiaren ondorioz jarduerak murriztu egin baitira).

